



ACZKO ARO EGUNA



ZERGATIK?





BA AL DAKIZU?

AEZKOAKO KULTUR ELKARTEA 1975ean jaio zela,
bailararen industrializazioa, kultura eta komunalaren
berreskuperapena sustatzeko.



NOLA GALDU GENUEN KOMUNALA?

1781ean Aezkoara iritsi ziren espainiar estatuko erregearen arduradunak, Orbaizeta ola berri bat eraikitzeko asmoz. Promesa faltsuak eta gezurrak erabiliz, Espainiako erresumak komunala bereganatu zuen.



200 URTEKO GUDAK

Orbaizetako olak setioak, guduak... erakarri zituen haranera. Esaterako herriek suteak pairatu zituzten baita karlisten eta liberalen arteko gudak ere.



ZIGORRAK

Aetzak salatuak, zigortuak eta jazarriak izan ziren komunala erabiltzeagatik, egurra ateratzeagatik eta arrantzatzeagatik, Estatu espainiarrak komunala bere gogara ustiatzen zuen bitartean. Hala eta guztiz ere, ez zen komunala berreskuratzeko nahia, eta mila irtenbide bilatu ziren, arrakasta handirik gabe.



BERRESKURAPENA

1977an, Aezkoako kultur elkarteak batzarrera deitu zituen 9 herriak. Sinadurak bildu, bilera, komunikatu ... ondoren, lehen urratsak geldoak eman ziren bailararen nahia berpiztuz.



HERRIAREN INDARRA

1978an, Orbaitzetako frontoian batzar bat egin ondoren, 70 aetzez osatutako talde bat komunalera jan zen. Han lanean ari zirenei mozketak bertan behera uztera behartu zieten. Horri esker, Espainiako Estatuaren herri-lurren ustiatupenarekin bukatu zuten.



1978 LEMIXIKO AEZKOAKO EGUNA

1978an, lehenengo Aezkoako Eguna ospatu zen Garaioan, bailarako indarra aldarrikatzeko jai gisa. Kultur asteak antolatu ziren, eta *Aezkoa* aldizkaria orduan sortu zen, non bailarako kezkak, ospakizuna eta gaurkotasuna adierazi zen.



1978 - 2024

Aldarrikapenak, desfileak, erakusketak, lehiaketak,
dantzak, bazkariak, barreak...

Aezkoako herri mugimenduak 46 urte bete ditu.

Aezkoako Eg
Ongi etorri

